Compro tiramisú comercializado por la marca "Duhl", cacahuetes marca blanca y chocolate al 70% del más barato.

Organizo con voluntarios una cadena de producción al más puro estilo fábrica de lo que sea, pero que produzca rápido y eficientemente. Se organiza de la siguiente forma:

- Persona responsable de la puesta en cadena del postre y retirada de la tapa de aluminio.
- Persona responsable de la colocación de los cacahuetes de forma aleatoria.
- Persona responsable de la colocación del chocolate rallado en forma de lluvia.
- Persona responsable de la colocación de la cucharilla de plástico en lado derecho sin tener en cuenta a la población zurda.
- Dos personas responsables de la entrega al cliente del postre finalizado.

Con esta acción se pone en evidencia que los deshechos plásticos originados en la producción y elaboración del postre son extraordinariamente mayores que en la producción y elaboración de la paella, que el trabajo en cadena puede resultar estresante y que no solo de alimentos naturales se nutre el ser humano.

¡Por una salud del arte!

## PIKUTARA LAN... POST-KAPITALISTA!

### GORA ARTELAN SANOA! ETA ARTE SENDATUA!

Zuhaitz Izarra

Elika zaitez artez = Elikatu osasuntsu, orekatuta. Errespetatu eta estimatu lurrak eskuzabalik eta era desinteresatuan eskaintzen dizkigun denborak eta fruituak. Ekoizleen/artisauen produktuak dira; batzuek lan egiten dute beren mahaira nutrizio-balio handiko, tokiko, sasoiko produktu naturalak edota eko-logikoak eramateko; beste batzuek, berriz, merkatu eta denda espezializatuetan guri eskaintzeko.

Azkenean, ondorengoak dira paella bihurtutako produktuak:

- 3'5 kg kalabaza Patxi nire etxejabearen ortutik. Lezama, Araba. Naturala.
- 2'5 kg azenario Izarra Jatetxearen ortutik. Bitoriano, Araba. Naturala.
- 3 porru sorta Anderren ortutik. Elgea, Araba. Ekologikoa.
- 3 berakatz-buru herritar batengandik. Subilla Morillas, Araba. Naturala.
- 2 kg tofu zuri Zuaitzorengandik, elikagai ekologikoen ekoizlea. Vitoria-Gasteiz, Araba. Ekologikoa.
- 200 gr Kombu alga eta Algamar wakame. Alga biltzaile eta ekoizleengandik. Pazos de Borbén, Pontevedra. Ekologikoa.
- 4'5 kg arroz biribil integral. Calasparra, Valencia. Ekologikoa.
- 1/2 litro oliba-olio birjina estra, % 100 arbekina, Albador Artajo. Tutera, Nafarroa. Ekologikoa.
- Atlantikoko itsas gatza, Danival, lokatz-geruza gainean eskuz bildutakoa. Andiran, Portugal. Naturala.
- Tamari Yaemon soja-saltsa, La Finestra Sul Cielok Japoniatik inportatua. Ekologikoa.
- 11 litro ur iturburutik. Sarria, Araba.

8 ordutik gora eman nituen paella hau prestatzen, 45 pertsona inguruti eta bi txakurri jana emateko. Elikagaiak, eskuratu zirenetik, maitasunez eta errespetuz eraldatuak izan ziren, eta bakoitzari behar zuen denbora eman zitzaion ondua izateko.

Paellak 15 minutu inguruko egote-denbora behar duenez eta jendea gosez eta egonarri gutxirekin datorrenez, elikadura natural eta energetikoari eta erabilitako produktuei buruzko aholkuak emateko espazio egoki bat sortzen da, zertaz aritzeko eta: mastekatzearen ahalmenaz. Artisau-produktuak eta -ekoizleak. Arroz integrala, eta ez arroz zuria. Etab.

Gizakia ez da elikagai naturalez soilik elikatzen, baita emozioez ere, eta horregatik eskaintzen dut une hau magoz mozorrotuta eta frantses azentu nabarmenaz, truku pare bat ere egin eta bertaratuei algara bat edo beste ateratzeko eta paella-egonaldia arintzeko.

Postrerako, predikatzen dudanaren kontrakoa egitea erabaki dut.

"Duhl" markak merkaturatutako tiramisua erosi dut, baita marka zuriko kakahueteak eta % 70eko txokolate merkeena ere.

Boluntarioen bidez, produkzio-kate bat antolatu dut dena delako fabrika bat balitz bezala, baina azkar eta eraginkortasunez ekoizten duena. Era honetan antolatu dut:

- Postrea katean sartu eta aluminiozko estalkia kentzen dion pertsona arduraduna.
- Kakahueteak azarean jartzen dituen pertsona arduraduna.
- Euri formaz txokolate xehatua gehitzen duen pertsona arduraduna.
- Ezkertiak kontuan hartu gabe, eskuineko aldean plastikozko koilaratxoa jartzen duen pertsona arduraduna.
- Bukatutako postrea bezeroei ematen dieten bi pertsona arduradun.

Ekintza horren bitartez, agerian geratzen da postrea ekoizten eta prestatzen sortutako plastikozko hondakinak askoz handiagoak direla paella ekoizten eta prestatzen baino, baita kate-lana estresagarria izan daitekeela ere, eta gizakia ez dela elikagai naturalez bakarrik elikatzen.

Artearen osasunaren alde!



# MUTUR BELTZ

Laurita Siles • Joseba Edesa

Mutur Beltz Laurita Siles eta Joseba Edesaren bizi-proiektu bat da. Josebaren familiaren abeltzain-jatorrian du sorburua, ardi-azienden munduari buruzko zaletasun komunak kutsatuta. Proiektuak karrantzar ardi muturbeltzak hartzen ditu abiapuntutzat, egun, galtzeko arriskuan den espeziea.

Praktika artistikoko esperimentaziotik abiatuz, bi objektu-eskultura sortu ditugu: BiziKarder bat (artilea garraiatzen duen bizikleta) eta BiziRueka (haril-gurpil bat daukan bizikleta). Artilea lantzeko bi tramankulu horiek ekintza- eta pieza-sorta baten hasiera dira, adibidez, Mutur Beltz txapelen serie mugatu bat (karrantzar ardi muturbeltzen ilez egindako txapelak), feltratze hezeko teknika batez ondutakoak.

Bizitza osasungarri, sortzaile eta parte-hartzaileari buruzko jarrera umil batez, proiektu honen helburuak dira artileak lehengai moduan duen balioa berritzea, egun bota egiten baita. Produktu horrek, izan ere, propietate ugari dauzka: bakterien kontrakoa da, isolamendu termikoduna, iragazgaitza, sutik babesten du, etab. Gainera, zaharkitutako lanbide iraunkorrak berreskuratzen ditugu: adibidez, irutea, txarrantxatzea, feltratzea, etab. Hartara, tokiko ondarea kontserbatzen eta berritzen laguntzen dugu.

Artetik, baserri-proiektu ekologikoa lantzen dugu. Bizi-eredu berriak aztertzen ditugu arte-jardueran oinarrituta, baita autonomian eta autokudeaketan ere. Energia-baliabideen erabilerak eta kontsumo-ohiturek kezka pizten digute. Horrenbestez, gogoeta egin dugu artearen eta artisautzaren arteko bereizketaz, zer den zerbait ikasia, zer herrikoia, zer den baserrikoa eta zer hirikoa, etab. Elkarren aurkako bikoteak osatzen dituzte eta, bertan, artisau-lanbideek (kasu honetan, artile-lana) artearen gizarte-ospetik edaten dute, betiere ulertzen baitugu artea bizi-erresistentzia eta -gogoetarako tokia dela.

Mutur Beltz es un proyecto de vida de Laurita Siles y Joseba Edesa. Este nace a partir del origen pastoril de la familia de Joseba, contagiado del afán común por el mundo ovino, tomando como punto de partida las ovejas carranzanas de cara negra, actualmente una especie en peligro de extinción.

Desde la experimentación en la práctica artística hemos creado dos objetos-esculturas: Una BiziKarder (una bicicleta cardadora de lana) y una BiziRueka (Una rueda de hilar sobre un bicicleta). Estos dos artilugios para trabajar la lana han sido y son el inicio de un compendio de acciones y piezas. Como por ejemplo, una serie limitada de Txapelas Mutur Beltz, (boinas de lana de oveja carranzana de cara negra) confeccionadas a partir de la técnica de fieltrado húmedo.

Bajo una actitud humilde hacia la vida saludable, creativa y participativa; este proyecto tiene como objetivo revalorizar la lana como materia prima, que a día de hoy, se tira. Este producto tiene una gran cantidad de propiedades: es antibacteriano, aislante térmico, impermeable, ignífugo, etc. Así como la recuperación de oficios en desuso y sostenibles: como el hilado, cardado, fieltrado, etc. Participando en la conservación y renovación del patrimonio local.

Cuestionando la dicotomía entre el arte y la artesanía, donde estos oficios primarios, se nutren de la preeminencia del componente social del arte. Entendiendo este como un lugar de resistencia vital y de reflexión sobre la necesidad de un cambio social alejado del sistema capitalista que nos inmunda, en busca del impulso ecológico, de una autogestión y soberanía alimentaria adecuada al valor pedagógico de un espíritu crítico y creativo.













# (BESTE) INTERNAZIONALA

Igor Rezola

Lehenago lanera joaten ginen fabrikara, soldata baten truke ekoiztera. Langile-klasearen ekonomia- eta lanbaldintzak langileen borrokarako, antolakuntzarako kemenaz hobetzen ziren. Soldata duina lan duinaren truke. Argi zegoen. Aisialdirako, pilotalekua zegoen, taberna, paseoak, dantzaldiak, hondartza. Bizitzeko lan egin. Orduan, trenen galdatze-lanetan aritzen nintzen, eta banuen aisialdia.

Aldiz, taberna fabrikara sartu zen, *buffet* librea jarri baitzuten, eta azukre gabeko zuku gaingozoak zituen, baita *trans* gantza duen janari beganoa ere. Pilotalekutik mahaifutbolera pasa ginen, paseoetatik korritzeko makinetara, dantzaldietatik hari musikalera, eta hondartzetatik Itsaso Hileko gatz-bainuetara. Guztia ere fabrikaren barruan gustura lan egiteko, bertan gogotsu “behar beste denbora” emateko, aisialdirik ez edukitzeko. Fabrikak, betiere aldakorrak, ekoizpen-betekizun berrietara egokitzeko ahalmena du, hura auzitan jartzea eragozten duten lanereduak sortzen ditu. Lana da zure bizitza osoa, zure aisialdi guztia, gatazkarik ez. Tamalez, hori da gatazka: lan egiteko bizi. Garai hartan, buruan kubo bat jantzita eta spray batez jartzen nituen zalantzan ekoizpen-moduak.

Aldiz, ekoizpen-eredua kulturara ere heldu da. Arte garaikidea eta kultur azpiegiturak industriak bihurtu dira, sortzaileen prekarizazioaren lepotik ekonomikoki ekoitzi egiten duten ereduak dira. Orduan, tximinien ondoan aritzen nintzen, su-itzalgailuak husten.

Hala ere, langile-klaseak, orain klase ertaineko enplegatuen taldea baita, badu ekoizpen-sistema (neo) kapitalistaren kontra bihurtzeko aukerarik: ezer ez eginez, nagikeria-eskubidea erreklamatuz. Orain, Igorrek bat egiten du Malevic-ekin, eta Stilinovic artista lotiarekin batera lan egiten du; Stilinovicek bezala, galdu egin du lan behartuaren kritika sistematikoa ez beste edozertan lan egiteko gaitasuna. Ez dago arterik nagikeriarik gabe, PIKUTARA LANA!

Arantza Lauzirika

# LA (OTRA) INTERNACIONAL

Igor Rezola

Antes se iba a la fábrica a trabajar, a producir a cambio de un salario. Las condiciones económicas y laborales de la clase trabajadora mejoraban en función de su capacidad de lucha, de organización. Un salario digno por un trabajo digno. Estaba claro. Para pasar el tiempo de ocio, ya estaba el frontón, la taberna, los paseos, las verbenas, la playa. Trabajar para vivir. Entonces soldaba trenes y tenía tiempo de ocio.

Pero la taberna entró en la fábrica en forma de *buffet* libre con zumos edulcorados libres de azúcares y comida vegana con grasas trans. El frontón tomó forma de futbolín, los paseos se transformaron en cintas de correr, las verbenas en hilo musical y la playa en baños con sales del Mar Muerto. Todo dentro de la fábrica, para trabajar a gusto, para no dudar en permanecer allí “el tiempo que haga falta”, para no tener tiempo de ocio. La fábrica, siempre mutante, con capacidad para adaptarse a las nuevas exigencias de producción, genera unos modelos de trabajo que disuaden de cualquier cuestionamiento. El trabajo es toda su vida, todo su ocio, no hay conflicto. Lamentablemente, ese es el conflicto: vivir para trabajar. Entonces cuestionaba los modos de producción con un cubo en la cabeza y un spray.

El modelo de producción, llega también a la cultura. El arte contemporáneo y las infraestructuras culturales se han transformado en industrias, en modelos productivos económicamente a cuenta de la precarización de los creadores. Entonces acompañaba a las chimeneas vaciando extintores.

Pero la clase trabajadora, ahora empleados de clase media, tienen en sus manos la posibilidad de volverse contra el sistema de producción (neo)capitalista: no hacer nada, reclamando el derecho a la pereza. Ahora se manifiesta con Malevich y trabaja junto al artista durmiente de Stilinovic y como él, ha perdido la facultad de trabajar en cualquier cosa que no sea la crítica sistemática al trabajo forzado. No hay arte sin pereza iABAJO EL TRABAJO!

Arantza Lauzirika





**(beste) INTERNAZIONALA**

(beste) INTERNAZIONALA, Inmersiones-ek antolatutako “Pikutara lana!” izeneko jardunaldien barruan buruturiko ekintza da.

Ekintza hau hiru zatik osatzen dute:

1. Kotxe beltz batek daraman megafonia ekipoaren bitartez, Internazionalaren bertsioa erreproduzitzen da. Ereserkiaren bertsio honetatik L A N letrak ezabatu dira.
2. Kotxe gorri batek argazki irudi bat darama gainean. Irudian pertsona bat ohe gorri batetan etzanda ageri da.
3. Kotxe zuria batek beste argazki irudi bat darama. Bertan Internazionalaren letra zirrimarratuta ageri da, L A N letrak soilik utziaz bistan.

**LA (otra) INTERNACIONAL**

LA (otra) INTERNACIONAL, es una acción desarrollada dentro de las jornadas organizadas por Inmersiones bajo el título “¡ Abajo el trabajo!”.

Dicha acción se compone de tres partes:

1. Un coche negro, mediante un equipo de megafonía, reproduce la versión de La Internacional. De esta versión del himno, se han eliminado las letras L A N (trabajo en euskera).
1. Un coche rojo transporta una imagen en su parte superior. En ella aparece una persona tumbada sobre una cama roja.
1. Un coche blanco transporta otra imagen. Esta imagen contiene la letra de La Internacional tachada, exceptuando las letras L A N (trabajo en euskera).











## EL TEOREMA DE MASLOW 1.3 "133"

Fermín Díez de Ulzurrun • Peio Izkue

El teorema de Maslow es un **proyecto colaborativo y abierto**, que tiene como contexto el **arte crítico** y que se estructura alrededor de los estadios de la "pirámide de Maslow". Este proyecto que presentamos a Inmersiones es la tercera acción dentro del primer estadio (de ahí la denominación "1.3"). A la misma le han precedido una exposición en el Festival Embarrat, y la simbólica ocupación de la fábrica Industrias Aranguren en Ansoáin.

La acción que presentamos en Inmersiones consiste en una **merienda popular** que a su vez transformaremos en un ejercicio lúdico de **"fabricación de 24 bocadillos de chorizo envueltos en papel albal"**. Dos equipos competirán por cubrir la demanda en términos de organización, plazos, calidad, tiempos, eficiencia y seguridad de las necesidades del exigente público de Inmersiones. El trabajo de cada equipo será medido en parámetros habituales de la producción en masa, en valores de 0 a 133, y tras una ponderación de cada parámetro, se asignará un **equipo ganador** que obtendrá un premio de **100 €.**

Trataremos de que esta gynkana, este juego, nos permita hacer una reflexión final para hablar de temas que más allá de lo lúdico, condicionan enormemente nuestras vidas. Hablaremos de la **división del trabajo** en operaciones menores que hacen que el trabajador se aleje del producto de su trabajo y le genere eso llamado "alienación", que no por ser tan citado deja de ser un enorme generador de sufrimiento. Hablaremos de la obsesión del positivismo científico por **medir** nuestras vidas, por **cuantificar** todas las actividades humanas en una especie de fe ciega en que todo se puede explicar y medir mediante la ciencia, que tanto la conecta paradójicamente con la magia y la mitología. Hablaremos del **trabajo de los artistas**, que aunque externamente parezca más elevado que el del operario de fábrica, nos preguntaremos si no está más alienado tanto en términos de precariedad como en términos de "colaboracionismo" en la aceleración del capitalismo (que es ya cultural, que fabrica relatos más que productos). Hablaremos de la posibilidad o imposibilidad de hablar hoy día del **trabajo en equipo**, de la democratización y horizontalización de los centros de trabajo. Hablaremos de la **competitividad entre artistas**, de ese desperdicio de recursos en el que se invierten miles de horas y que al final "sólo puede quedar uno", sólo uno es el premiado, el que alcanza el éxito del museo o la galería….todo ello mientras degustamos esos 24 bocadillos fabricados con nivel de excelencia que se da por supuesto en un entorno de creadores de reconocido prestigio.

## MASLOWREN TEOREMA 1.3 "133"

Fermín Díez de Ulzurrun • Peio Izkue

Maslowren teorema **lankidetza-proiektu ireki bat** da, arte kritikoaren testuinguruan kokatua eta "Maslowren piramidea"ren etapen inguruan egituratua. INMERSIONESi aurkezten diogun proiektua lehenengo etapako hirugarren ekintza da (hortik datorkio "1.3" izena). Aurretik izan du Embarret Festibalean egindako erakusketa bat, baita Antsoaingo Industrias Aranguren fabrikaren okupazio sinbolikoa ere.

Inmersionesen aurkezten dugun ekintza **herri-askari bat** da; aldi berean, ariketa ludiko bat bihurtuko dugu: **"albal paperean bildutako 24 txorizo-bokadilo fabrikatu"**.

Bi talde lehiatuko dira antolakuntza, epe, kalitate, denbora, efizientzia eta segurtasunaren aldetik Inmersioneseko jende zorrotzaren beharrizanen eskariari aurre egiteko.

Lantalde bakoitzaren lana masa-produkzioaren ohiko parametroen arabera neurtuko da, 0tik 133 arteko balioetan eta, parametro bakoitza aztertu ondoren, lantalde irabazle bat erabakiko dugu, 100 € irabaztekoa.

Saiatuko gara proba hau, joko hau, alderdi ludikotik haraindi, gure bizitzak izugarri baldintzatzen dituzten gaiei buruzko azken gogoeta bat egiteko baliagarri egiten. Eragiketa txikietako **lan-bereizketaz** hitz egingo dugu, langilea bere lanaren produktutik urrunarazi eta "alienazio" delako hori eragiten diona, askotan aipatua izan arren, sufrimendu-eragile handia izaten jarraitzen duena. Gure bizitzak **neurtzeko**, giza jarduera guztiak **kuantifikatzeko** positibismo zientifikoak daukan temari buruz hitz egingo dugu, zientziaren bidez dena azaldu eta neur daitekeela dioen fede itsua baitauka, horrek magiarekin eta mitologiarekin parekatzen duen arren, paradoxikoki. **Artisten lanaz** eztabaidatuko dugu, itxura batean kanpotik fabrikako langile batena baino gorago dagoena, baina geure galdera da ez ote dauden alienatuago prekarietateari dagokionez eta ez ote duten kapitalismoarekiko "kolaborazionismoa" bizkortzen, dagoeneko kulturala dena, kontakizunak ontzen baititu produktuak baino. **Talde-lanaz,** lantokien demokratizazioaz eta horizontalizazioaz hitz egiteko aukera ote dagoen edo ez eztabaidatuko dugu. **Artisten arteko lehiaz** eztabaidatuko dugu, milaka ordu eman ondoren, baliabideak xahutzeaz, azkenean artista "bat bakarrik geratu" baitaiteke (saridun bakar bat), museoaren edo galeriaren arrakasta lortzen duena… Hori guztia 24 bokadiloak dastatzen ditugun bitartean, bikaintasunez fabrikatuta behar dutenak noski, ez baikaude alferrik ospe ezaguneko sortzailez inguratuta.






# MUNDINA

Mundina deitzen didate, baina nahiago nuke On Roberto Landa Armentiakoa eta Akisgrangoa deitzea.

Trebea naiz eskuinaz.

Hasitako ikastaro edo espezialitate bat ere ez dut bukatu, nagikeria edo ezaxola hutsez. Gainera, hemendik, eskertu egin nahi diet irakasle batzuei ikasgaiak emateko izan duten era gogaikarria.

Idatzizko eta oihukatutako zenbait hedabidetan marraztu dut, horietako batzuk demokraziaren eta antiterrorismoaren izenean itxiak.

Poliziak bahitutako pankartak egin izan ditut, egun harrabots handiz sistemaren kontrako talde deitzen duten horientzat, musika-talde izerditsuen diskoetarako, auzoko kontzertuetarako, eta noiz edo zertarako ere gogoan ez ditudan beste hainbat gauzatarako.

Egun, batzuetan, marraztu egiten dut aspertzen naizenean eta, batzuetan, marrazten aspertzen naiz.

Batzuetan, pintatu egiten dut. Akrilikoak baliatuz, merkeagoak baitira.

1.800 bat karaktere idatzi behar ditut, eta uste dut nire buruaz gehiago zer esan ere ez dakidala.

Kolore urdin zikineko txigorgailu batekin nabil maitasun-harremanean, eta berak ere, maionesa bailitzan, nire musa izan nahi du.

“Ma-io-ne-sa, neskak irabiatzen nau maionesa egiten bezala, nik hartutako guztia burura igo zitzaidan berehala”.

Azken lerro hauek baliatuz, eskatu nahi dizuet drogei ezetz esateko, eta zuen arte-ekoizpena mundu hau, modurik balego, are jasangaitzagoa egitera bideratzeko.

Erretiroa hartu nahi dut.

Se me conoce como Mundina, pero me gustaría que me llamasen Don Roberto Landa de Armentia y Aquisgrán.

Soy diestro.

No he acabado ninguno de los cursos o especialidades comenzadas por pura vagancia y/o desinterés. Asimismo desde aquí quiero agradecer a algunas profesoras y profesores su deleznable forma de impartir materia.

He dibujado en diferentes medios escritos y gritados, algunos de ellos cerrados en nombre de la democracia y el antiterrorismo.

He realizado pancartas requisadas por la policía, carteles para lo que ahora se conocen rimbombantemente como grupos antisistema, para discos de grupos sudorosos, conciertos barriales y otras cosas que no me acuerdo ni cuándo ni para qué.

Actualmente, a veces dibujo cuando me aburro y a veces me aburro dibujando.

Y a veces pinto. Con acrílicos que son más baratos.

Tengo que escribir unos 1.800 caracteres y creo que ya no sé qué más decir.

Mantengo una relación sentimental con una tostadora de color azul sucio y ella también es mi musa, como la mayonesa.

“Ma-yo-ne-sa, ella me bate como haciendo mayonesa todo lo que había tomado se me subió pronto a la cabeza”.

Aprovecho estas últimas líneas para instaros a que digáis no a las drogas y para que toda vuestra producción artística esté dirigida a conseguir que este sea un mundo insoportable.

Quiero jubilarme.








INMERSIONES 2015
Saioa Olmo PERFORMAN
"NOS ERES MUY CONVENIENTE"
EROMECÁNICA
masoquismo
María Paniego
Amaia Vicente
NO SUBSISTIRÁ LA VIDA EN EL PARAISO CAPITALISTA
→ PINTADA
EL PARAISO
Welcome to PARADISE
SIX MINUTES OF Silence
PARAISOS FISCALES
→ BANDERAS
Karmelo Bermejo
NO TRABAJAR
SUBVENCIÓN DURANTE 1 AÑO
"0" el dinero fue devuelto
DINERO PARALIZADO
3.000 € de dinero público
PARA COMPRAR LIBROS de BAKUNIN
que posteriormente
Mirari Echávarri
"FROM WORK"
new york
INMIGRANTE BUSCAR TRABAJO
fotografía ANALÓGICA
EL arte PRODUCE y DOCUMENTA la VIDA
plagas DE CHINCHES
REFLEXIÓN ICP· intercambio $ → tiempo PRODUCCIÓN
Politico Poetico
AMAIA MOLINET & DAVID PAVO
HERLIEBE
PRECARIEDAD
el trabajo del artista
herri + relieve
AMOR (en alemán)
POLITIKO
EXPOSICIÓN
TERRI FLORIDO
artesano sonoro MÚSIC
GEOACÚSTICA
ZOMBIPOLIS
trabajo CRISIS
OSCILAMOS
los pensamientos
PEREZA
22:00-6:00
pronto saldréis del paro y volveréis a la PRECARIEDAD
Oier Gil
ME CAGO EN EL TRABAJO
40 €/mes WC lugar silencioso
0 €/mes 900 FOTOS
ANTIDINERO
SUBASTA 38 OBRAS
parodia
CRIS - Secretaria
NEREA - Ayudante
RUBÉN - Martillero
PUJAS
INMOVILIZAR el dinero 1.015,17 €
ERNESTO · TURULO OBRA en DEPÓSITO
Sacar el dinero DE LA CIRCULACIÓN
abiertos MAR DOMÍNGUEZ
ALBERTO DIEZ
autoprecarización
ocupar el espacio expositivo para adecuar COMO ESPACIO de TRABAJO
DINERO = PODER
CONTENEDOR PROPUESTA INCÓMODA
público EMPLEAR el tiempo para presentarse a otras ayudas



## OSO KOMENIGARRIA ZARA GURETZAT · NOS ERES MUY CONVENIENTE

Saioa Olmo

***D:*** *Hainbesteko plazerak lana inhibitzen du.*
***E:*** *Ba ni lan egiteak berotu egiten nau. Nire ahalmenetan gozatu, nire lorpen txikiekin asebete, nire nahiekin masturbatu.*
***D:*** *Zure onanismoa primeran datorkigu.*
***E:*** *Badakit lanarekin gozatzeak normala denaz kanpora egiten duela baina kontra-korronte horretan joateak oraindik gehiago berotzen nau.*
***D:*** *Etzazu zure desira eragotzi. Zuzen ari zara. Are gehiago, propultsio sisteman leku bat dugu zuretzat. Zure ahaleginak goratuko ditugu, zure balentriak txalotu eta pizgarriz bete.*
***E:*** *Zer gehiago eska nezake? Egiazki, gogoko dut autoesplotatzea. Mugaraino joatearen segurtasuna ematen dit. Nolabaiteko mina sentitu arte soka tinkatzeak ondo ari naizela esaten dit. Lasaitu egiten nau, berretsi egiten nau eta jarraitu behar izatearen erantzukizunaz askatu.*
***D:*** *Ziur izan guztiontzat inspirazio iturri zarela.*
***E:*** *Bai, baina agian zertxobait urrutirago joan ninteke.*
***D:*** *Nahi baduzu soka pixka bat gehiago estutu dezaket.*
***E:*** *Bai mesedez. Eragin biradera, poleak bira dezala.*
***D:*** *Arriskutsua da.*
***E:*** *Atsegin dut adrenalinak gora egitea.*
***D:*** *Horrela?*
***E:*** *Gehiago*
***D:*** *Horrela?*
***E:*** *Gehiago*
***D:*** *Horrela?*
***E:*** *Ahhh.*
***D:*** *Aski da, estutu bai baina ito gabe. Oso komenigarria zara guretzat.*

(«EROMEKANIKA. Makineria sozialaren erotika» proiektuaren elkarrizketen pasartea)

Kontroleko gailuek erregulatutako makineriaren parte gara: kartzela, eskola, osasungintza, lana, erlijioa, kontsumoa, polizia, justizia… Artefaktu konplexuak dira hainbat tresnaz baliatzen direnak: errutinez, legeez, neurri administratiboez, enuntziatu zientifikoez, proposizio filosofiko eta moralez, portaera-protokoloez, formula linguistikoez… Eromekanikak egitura sozialak mantentzen laguntzen duten pultsio libidinosoak azalarazten ditu.

***D:*** *Tanto placer inhibe el trabajo.*
***E:*** *Pues a mi trabajar me pone. Regodearme con mis propias capacidades, obtener satisfacción con mis pequeños logros, masturbarme con mis aspiraciones.*
***D:*** *Tu onanismo nos es muy conveniente.*
***E:*** *Sé que disfrutar trabajando se sale de lo normal pero ese ir a contracorriente me pone todavía más.*
***D:*** *No inhibas tu deseo. Estás haciendo lo correcto. Es más, tenemos un lugar reservado para ti en el sistema de propulsión. Vitorearemos tus esfuerzos, aplaudiremos tus hazañas y te colmaremos de incentivos.*
***E:*** *¿Qué más podría pedir? Ciertamente, me gusta autoexplotarme. Me da la seguridad de estar tendiendo al límite. Tensar la cuerda hasta notar cierto grado de dolor es lo que me dice que lo estoy haciendo bien. Me apacigua, me reafirma y me libera de la responsabilidad de tener que continuar.*
***D:*** *Ten por seguro que eres fuente de inspiración para todos.*
***E:*** *Sí, pero quizás podría ir un poco más allá.*
***D:*** *Puedo tensar la cuerda un poco más si quieres.*
***E:*** *Sí, por favor. Dale a la manivela, que gire la polea.*
***D:*** *Es peligroso.*
***E:*** *Me gusta que me suba el nivel de adrenalina.*
***D:*** *¿Así?*
***E:*** *Más.*
***D:*** *¿Así?*
***E:*** *Más.*
***D:*** *¿Así?*
***E:*** *Ahhh.*
***D:*** *Basta, que apriete pero que no ahogue. Nos eres muy conveniente.*

(Extracto de los diálogos del proyecto «EROMECÁNICA. La erótica de la maquinaria social»).

Formamos parte de una maquinaria regulada por distintos dispositivos de control: la prisión, la escuela, la sanidad, el trabajo, la religión, el consumo, la policía, la justicia… Artefactos complejos que cuentan con herramientas tales como rutinas, leyes, medidas administrativas, enunciados científicos, proposiciones filosóficas y morales, protocolos de actuación, fórmulas lingüísticas… Eromecánica indaga sobre las pulsiones libidinosas, como un agente más que contribuye al mantenimiento de estas estructuras.



## ABAJO EL TRABAJO · PIKUTARA LANA. WORK IN PROGRESS

Mario Paniego

Artearen testuingurura, langile-mugimenduaren bi aldarrikapen ekarri nahi ditut, krisi-urte hauetan faltan ematen ari naizenak. Seguru pertsona batzuek ahotsa aldarrikapen horien alde altxa dutela. Hala ere, ez behar bezain ozen edo kemen.

Batzuetan, irudipena dut krisia sortu duen kapitalismoak sindikatuak anestesiatu dituela edo, beharbada, hainbeste erasori aurre egiten ezinean dabiltzala, eta gainezka. Ikusten dudanez, zenbait aldarrikapen, adibidez, lanaldiaren murrizketa edo lanaren banaketa hutsaldu egin dira, ez dira erabiltzen gehiago. Elkarri lotuta doazen aldarrikapenak dira eta, nire iritziz, une honetan dute premia eta zentzu gehien (azken urte hauetan, langabeziatasa % 25 ingurukoa da). Are, esango nuke egokiera handiagoa dela langile-klasearentzat, oro har, kontsumoak eta kapitalismoak lokartuta dauzkan une honetan. Izan ere, kapitalismoak krisia gainditzen duenean, anestesia kolektiboa gehiengoaren gainera itzuliko da, Visa-Mastercard formatua hartuta.

Horregatik ekarri ditut aldarrikapenok testuinguru honetara. Zabaldu egin behar dira nire ustez, hauspotu. Bestela, beharbada erakusleiho batean jarri, bere burua kontsumitzen duen mundu honen museo bateko kontsumo-objektu bilakatuta. Mundu honetan, gehiengoak iparra galdu eta urrea aurkitu duela ematen baitu. Mundu honetan, metalaren grabitateak bista jaitsi digu eta, hainbeste, ze horizontea ere galdu dugun.

**LANALDIA MURRIZTU! LANA BANATU!**

Quiero traer al contexto del arte dos reclamacione s del movimiento obrero que llevo echando de menos en estos años de crisis. Seguro que hay personas que han alzado la voz a favor de ellas. Pero no lo suficientemente alto ni con la fuerza que era necesaria.

A veces, me da la impresión de que las fuerzas sindicales están anestesiadas por este capitalismo creador de crisis, o tal vez es sólo que están tan embarradas en contrarrestar tanto ataque que no dan abasto. Observo que proclamas como la reducción de la jornada laboral o el reparto del trabajo se han difuminado, han quedado en desuso. Proclamas que van ligadas la una a la otra y que siento que en este momento es cuando más urgencia y sentido tienen (en estos últimos años la tasa de paro esta rondando continuamente un 25%). Podría decir incluso mayor oportunidad entre la clase trabajadora, por lo general adormilada por el consumo y el capitalismo. Ya que en cuanto el capitalismo supere su crisis la anestesia colectiva va a volver sobre la mayoría en formato Visa-Mastercard.

Por eso las traigo a este contexto. Siento que hay que darles difusión, aliento. O si no, tal vez una vitrina, que sean un objeto de consumo más dentro de un museo en este mundo que se consume a sí mismo. Donde la mayoría parece haber perdido la brújula y encontrado el oro. Donde la gravedad del metal nos ha bajado tanto la vista que hemos perdido el horizonte.

**REDUCCIÓN DE LA JORNADA LABORAL! REPARTO DEL TRABAJO!**



# LANA, BAITA KAKA ERE · ME CAGO EN EL TRABAJO

Oier Gil

"Bizitzeko lan egin" zertan bihurtuta eta "ekoitzi ahal izateko lan egin". Ekoizte hori artista baten lana izan beharko litzateke, soldata baten trukean egindako jardueratzat hartua, baina hori, gehien-gehienetan, ez da gertatzen.

Proiektuak ordaindu ahal izateko egin behar izan ditudan lanek, robot bihurtzen naute, inpertsonalizatzen. Kultura-arloko lanetan ere, adibidez, Hangar, EITB edo Tabakalera, ekoizpen-katearen begi bat gehiago baino ez naiz, eta denbora zein ekoizteko gogoa lapurtzen didatela sentitzen dut.

Peter Handkek, *toki isila*ri buruzko bere saiakeran, komun-ontziari buruzko bere gogoetan, "The Stars Look Down" eleberriko pasarte bat aipatzen du: bertan, heroietako batek *komunera joateko ohitura hartzen du, komun-ontzira, beharrik eduki gabe. Komunean ixten du bere burua konpainiaz kokoteraino bukatzen duen bakoitzean, eta bertan geratzen da normala den baino luzaroago*. Handkeren idazkiak J. Tanizaki japoniar eleberri-idazlearen hitzak ere aipatzen ditu. Japoniar idazleak, izan ere, tenpluetako komunak goresten ditu "Itzalaren gorazarrez" liburuan, bertan nagusitzen den isiltasunagatik eta *espirituak lasaitasuna aurkitzen duelako, hitzaren zentzu zintzoenean*.

Komuneko bisitetan aurkitzen dut nik lasaitasun osoa, eta irudimena astintzen dut orduan, sormenari atea irekitzen. 2012tik aurrera, bainuko bisita bakoitzean, nire burua ontzian eserita irudikatzen dut. Nire "parentesi-momentu" hori beharrizan bihurtzen da asteko lanorduetan. Argazkiekin dudan hitzordura noala irmo sinetsita, errutinatik alde egiten dut, bakea aurkitzen, eta izan nahi dudan "ni" naiz berriz ere, komun-ontziaren katearen hotsak lantokira behar dudala gogorarazten didan arte. Pikutara lana. Lana, baita kaka ere, eta kaka egiten dut nik lanean, ekoizteko.

El "trabajar para vivir" convertido en "trabajar para poder producir". Ese producir debería ser el trabajo de un artista, entendido como la ocupación ejercida a cambio de un salario que, en la gran mayoría de los casos, no se da.

Los trabajos en los que he tenido que trabajar para poder costearme proyectos, me robotizan e impersonalizan. Incluso en los de ámbito cultural como Hangar, EITB o Tabakalera, he sido y soy un eslabón de la cadena de producción y siento que me roban el tiempo y las ganas para producir.

Peter Handke en su ensayo sobre el Lugar Silencioso, reflexionando acerca de la taza del váter, cita un pasaje de la novela "The Stars Look Down" donde uno de los héroes *ha cogido la costumbre de ir al servicio, al retrete, sin tener necesidad de ello. Se encierra en el retrete cada vez que está harto de la compañía y se queda ahí por más tiempo del que es normal*. El escrito de Handke, también menciona las palabras del novelista japonés J. Tanizaki que en su libro "El Elogio de la Sombra" elogia los retretes de los templos por el silencio que en ellos reina y *donde el espíritu encuentra la calma, en el sentido más verdadero de la palabra*.

Es en las visitas al retrete donde encuentro la absoluta tranquilidad y doy rienda suelta a la imaginación para dar pie a la creatividad. Desde el 2012, en cada visita al baño me autorretrato sentado en la taza. Este hábito en mi "momento paréntesis" se vuelve una necesidad a lo largo de las horas de trabajo semanales. Bajo el convencimiento de acudir a mi cita diaria con las fotos, huyo de la rutina, encuentro la paz y vuelvo a ser el "yo" que quiero ser hasta que el ruido de la cadena del váter anuncia el regreso a formar filas en el trabajo. Abajo el trabajo. Me cago en el trabajo y cago en el trabajo para producir.

| | | | |
|---|---|---|---|
| SUPERFICIE TOTAL TERRESTRE | 1.020.144.000 | km² | 100% |
| Planeta Tierra | 510.072.000 | km² | |
| Océanos | 359.685.360 | km² | |
| Tierras emergidas | 150.386.640 | km² | |
| SUPERFICIE TOTAL TERRESTRE DE LOS "PARAÍSOS FISCALES" | 182.092 | km² | 0,017% |

| | PAÍS | BANDERA | km² | MAPA FÍSICO | HAB/Km² | MONEDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Liberia | | 111.370 | | 33 | DÓLAR LIBERIANO |
| 2 | Belice | | 22.966 | | 14,5 | DÓLAR BELICEÑO |
| 3 | Bahamas | | 13.940 | | 22 | DÓLAR BAHAMEÑO |
| 4 | Vanuatu | | 12.189 | | 16.98 | VATU |
| 5 | Chipre | | 9.250 | | 120,7 | EURO |
| 6 | Samoa | | 2831 | | 69,05 | TALA (WST) |
| 7 | Mauricio | | 2040 | | 630 | RUPIA |
| 8 | Baréin | | 760 | | 1.626 | DINAR BAREINI |
| 9 | Dominica | | 751 | | 92 | DÓLAR DEL CARIBE |
| 10 | Santa Lucia | | 616 | | 260 | DÓLAR DEL CARIBE |
| 11 | Isla de Man | | 572 | | 131 | LIBRA MANESA |
| 12 | Andorra | | 468 | | 162,6 | EURO |
| 13 | Seychelles | | 455 | | 179 | RUPIA DE SEYCHELLES |
| 14 | Curazao | | 444 | | 309 | FLORÍN DE LAS ANTILLAS NEERLANDESAS |
| 15 | Antigua y Barbuda | | 443 | | 198,38 | DÓLAR DEL CARIBE ESTE |
| 16 | Islas Turcas y Caicos | | 417 | | 45 | DÓLAR EEUU |
| 17 | San Vicente y las Granadinas | | 389 | | 267 | DÓLAR DEL CARIBE ORIENTAL |
| 18 | Islas Virgenes de los Estados Unidos | | 352 | | 354 | DÓLAR EEUU |
| 19 | Granada | | 344 | | 259 | DÓLAR DEL CARIBE ESTE |
| 20 | Malta | | 316 | | 1.431 | EURO |
| 21 | Maldivas | | 298 | | 1.171 | RUFIYAA |
| 22 | Islas Caimán | | 264 | | 139,5 | DÓLAR DE LAS ISLAS CAIMAN |
| 23 | San Cristobal y Nieves | | 261 | | 148 | DÓLAR DEL CARIBE |
| 24 | Niue | | 260 | | 17 | DÓLAR NEOZELANDÉS |
| 25 | Islas Cook | | 240 | | 87 | DÓLAR NEOZELANDÉS |
| 26 | Islas Marshall | | 181 | | 331 | DÓLAR EEUU |
| 30 | Jersey | | 116 | | 782,76 | LIBRA ESTERLINA |
| 31 | Anguila | | 96 | | 212,5 | DÓLAR CARIBE ESTE |
| 32 | Guernsey | | 79 | | 836,3 | LIBRA ESTERLINA |
| 33 | San Marino | | 61 | | 533 | EURO |
| 34 | Bermudas | | 53,2 | | 1241 | DÓLAR BERMUDEÑO |
| 35 | Narau | | 21 | | 213 | DÓLAR AUSTRALIANO |
| 36 | Gibraltar | | 7 | | 4.290 | LIBRA GIBRALTAREÑA |
| 37 | Mónaco | | 2 | | 17.821 | EURO |
| 38 | Suiza | | 41 285 | | 190,61 | FRANCO SUIZO |

# MAPA MUNDI 2014

Amaia Vicente

*Pertsonala dena politikoa da*, hala idatzi zuen Kate Millet-ek (1970) gorputzen identitateaz hitz egiteko.

Hala ere, XXI. mendean, zeri deitzen diogu "pertsonala" une honetan? Teknologia berriek gure espazio guztiak inbaditu eta mundu publiko, global eta abstraktu batera gure "pribatutasuna"ren leihoa irekitzen dute. Zeri deitzen diogu "politikoa", "pertsonala" denaren ideia horri lotuta?

Soziala dena emakume, gizon eta makinen edukiontzi handi bat da eta, bertan, gorputza sinboliko bihurtzen da, zatikatua, isuria, etengabeko eraikuntzan eta deseraikuntzan. Gizarteratze-prozesuak gizabanakoak bere gorputzari buruz dituen jokabideak arautzen ditu. Gorputza espazio deslokalizatua izatera pasatzen da, flotagarria eta askotarikoa arlo garaikidean, esanahi berriak dituen estrategia sinbolikoz zamatua.

Boterea, hemen, maila mikrosozialean jarduten duen erlazio dinamikotzat hartzen da, benetan "sortzailea" den eragile bat bezala, menperatu nahi duena eraiki eta hari forma ematen diolako. Gorputzen gaineko boterea indarren arteko erlazio dinamiko eta tirabiratsu bat da.

Aldiz, gorputzak, haien mamia eta identitatea ez dira zerbait itxia. Gorputzek "eragin" dezakete, "ekintzaileak" izan daitezke, eta erresistitu. Prozesu artistikoen bidez, performatibitate hori erabilera zehatzak ekoizten dituen sistemaren aurrez aurre dago eta, bertan, denbora "produktiboa" da bakarrik, eta "paradisuak", aurrez prestatutako desio eta beharrizanen mundu honetan beharrezkoak izan arren, Mendebaldeko sistema post-industrialak eta neoliberalak asmatutako zerbait bihurtzen dira.

"Bioperformatibitate teknologiko" posible horrek modua ematen die gorputzei espazioaren, sistemaren eta artelanaren kontzeptua esanahiez (berriz) betetzea prozesuen bidez; gainera, (bir)definitu egiten ditu gorputzaren mamia eta hark inguruneari, makinari eta ezagutza hartzeari buruz daukan erlazioa.

*Lo personal es político* escribió Kate Millet (1970) para hablar de la identidad de los cuerpos.

Pero en el siglo XXI, ¿qué definimos como "personal" en el momento en el que las nuevas tecnologías han invadido todos nuestros espacios y abren una ventana de nuestra "privacidad" a un mundo público, global y abstracto?, ¿qué definimos como "político" unido a esta idea de lo "personal"?

